



ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

PREMAZKO EGOERAN DAUDEN NORBANAKOENTZAT EDO FAMILIENTZAT UDAL DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK. 2026 URTEA

1. XEDEA

Deialdi honen xedea udal mailatik Banakako Laguntzak ematea da. Zehazki, bizikidetzaren unitate batean bizi diren gizabanakoentzat eta espreski adierazten diren gastuei, ohikoei nahiz ez ohikoei, ordaindutakoei nahiz ordaintzeke daudenei, aurre egiteko nahikoa baliabide ez dutenentzat banatuko diren diru laguntzak dira. Beharrezkoak babesgabetasun, menpekotasun edo bazterketa sozial egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo gutxitzeko.

Diru-laguntza hauek honako ezaugarriak izango dituzte:

- "Izaera finalista dute, eta soilik erabili behar dira eskatutako helbururako.
- Laguntza hauek ezingo dira aurrekaritzat hartu.
- Besterenezinak izango dira.
- Diru-laguntza izaera izango dute, eta horiek ematea Zumarragako Udalaren udal aurrekontuetan xede horietarako kreditua jarria egoteari egongo dira baldintzatuak.

2. ONURADUNAK

- Onuraduna Zumarragan erroldatua egon beharko da eta bere bizilekua ere udalerrian kokatua egon beharko da.

BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES ECONÓMICAS MUNICIPALES PARA PERSONAS O FAMILIAS EN SITUACIÓN DE NECESIDAD. AÑO 2026

1. OBJETO

El objeto de la presente Convocatoria es la concesión de Ayudas Individuales Municipales, de naturaleza económica y subvencional destinadas a aquellas personas residentes en Zumarraga, cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a los gastos específicos que se indican, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de desprotección, dependencia o exclusión social.

Estas ayudas tendrán las siguientes características:

- Carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto para el que hayan sido concebidas.
- No podrán ser invocadas como precedente.
- Serán intransferibles.
- Tendrán naturaleza subvencional, quedando su concesión sujeta a la existencia de crédito consignado para esa finalidad en los Presupuestos Municipales del Ayuntamiento de Zumarraga.

2. PERSONAS BENEFICIARIAS

- Las personas deberán estar empadronadas y la residencia será efectiva en el municipio de Zumarraga.

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen balioetasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-1-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

- Adinez heldua izan beharko da. Adin txikikoak haien kargura dituzten adin txikikoen kasuan izan ezik.
- Zeinahi kontzeptu dela bide eta bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztiak kontuan izanik, frogatzen den behar ekonomikoa estaltzeko nahikoa baliabide ekonomiko ez izatea. Norbanakoak edo familiak nahikoa baliabide ekonomiko ez duela esateko, sarreraren eta gastuen arteko erabilera libreko zenbatekoa urriagoa izan beharko da bizikidetzaren unitatearen kide kopuruaren arabera Diru-Sarreraren Bermerako Errentak ezartzen dituen zenbatekoetan egokituko litzaiekeen zenbatekoa baino.
- Ondasun higiezin modura: ez dira kontuan hartuko ohiko etxebizitza eta honi dagozkion garajea eta ganbara. Bere katastroko balioan 30.000 € gainditzen dituzten bestelako ondasun higiezinak hartuko dira kontuan.
- Norbanakoa eta familia ez da kontzeptu berdinegatik bestelako gizarte babeserako sistema baten onuradun izango urte honen barruan.

3. ESKARIAK ETA AURKEZTEKO EPEA.

Eskaera, eta harekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa, norberak eskura aurkeztu beharko du, nahitaez, Zumarragako Udalaren Gizarte Zerbitzuetako sailean.

Ez dira kontuan hartuko behar bezala bete gabe aurkeztuko diren eskari ezta eskatutako agiriak aurkezten ez

- Ser mayor de edad. Salvo en el caso de menores que a su vez, tienen otros menores a su cargo.
- No disponer de recursos económicos suficientes por cualquier concepto y procedentes de todos los miembros de la unidad de convivencia para la cobertura de la necesidad económica demostrada. Se considerará que una persona o familia no cuenta con recursos económicos suficientes cuando la cuantía de libre disposición entre los ingresos y gastos sea inferior a la que le correspondería en la cuantía establecida en la Renta de Garantía de Ingresos, según el número de miembros de la unidad de convivencia.
- Aquellas unidades convivenciales que cuenten con bienes muebles e inmuebles, sin contar la vivienda habitual garaje y trastero cuya cuantía sea igual o superior a 30.000 € no podrán acceder a este tipo de ayudas.
- Las personas y familias no habrán podido acceder a prestaciones económicas de cualquier sistema de protección social por los mismos conceptos.

3. SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACION

La solicitud y la documentación complementaria deberán presentarse obligatoriamente en persona en el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zumarraga.

No se tomarán en consideración aquellas solicitudes que se presenten sin cumplimentar debidamente, ni aquellas que no aporten la documentación

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliozuna egiaztatze hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-2-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

dituztenak ere. Eskaeraren eredia oinarri hauen eranskin gisa ageri da.

Deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskaerak; eta horiek aurkezteko epea deialdia egin den urtearen azken egunean amaituko da, deialdi honetarako jarria dagoen aurrekontua amaitzen denean.

4. EKARRI BEHARREKO AGIRIAK

Eskatzaileak behar den moduan egiaztatu beharko ditu ezarritako baldintza bakoitza. Diru-laguntza programak arautzen dituzten Oinarri Arauetako 6. Artikuluak xedatzen duen arabera (2023ko otsailaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 28. zb.), Zumarragako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetan ematen dituen dirulaguntzak eskuratzeko, Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodotik NISAEtik, zehazki:

- Pertsona eta/edo entitatearen nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztapena.

- Foru Ogasunekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztapena.

Horrez gain, premiazko egoeran dauden norbanakoentzat edo familientzat laguntzak eskatzen dutenen kasuan, honako datuak ere egiaztatuko ditu Zumarragako Udalak NISAEtik:

requerida. El modelo de instancia figura como anexo de las presentes bases.

Las solicitudes podrán presentarse a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y el plazo de presentación finalizará con el último día del año de convocatoria, una vez se agote el presupuesto destinado para esta convocatoria.

4. DOCUMENTACIÓN A APORTAR

El solicitante deberá acreditar suficientemente cada uno de los requisitos establecidos. Tal y como establece el artículo 6 de las Bases Reguladoras de los Programas de Subvenciones establecidos por el Ayuntamiento de Zumarraga (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 28 del 10 de febrero 2023), el Ayuntamiento de Zumarraga va a verificar los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones que otorgue en esta convocatoria desde la plataforma de interoperabilidad de datos NISAE:

- Consulta y verificación de datos de identidad de la persona y/o de la entidad.

- Consulta de estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

- Consulta de estar al corriente de sus obligaciones tributarias frente a las Haciendas Forales.

Además, en el caso de los solicitantes de ayudas para personas o familias en situación de necesidad se verificarán también los siguientes datos por parte del Ayuntamiento de Zumarraga a través de

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliozuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-3-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

- Egungo diru sarrereren kontsulta, bizikidetzatza unitateko pertsona guztiak kontuan hartuta. Baldin eta bizikidetzatza unitateko norbaitek ez badu diru-sarrerarik, langabezian dagoelaren egiaztapena eta enplegu eskatzaile bezala izen-ematearena.

- Bizikidetzatza unitatearen errolda historikoaren kontsulta.

- Eskatzailearen eta bizikiddeen ondasun higigarri eta higiezinen egiaztapena.

- Etxebideko eskaeraren erregistroa.

Udalak berak zuzenean ofizioz jasoko ditu Zumarragako Udalaren zergen eta zehapenen ordainketan egunean egoteari buruzko datuak, baita udalerrian erroldatuta egotearen datuak ere.

Interesdunak Zumarragako Udala NISAE elkarreragingarritasunerako plataformatik beste Administrazio Publikoetan berak aurkeztu dituen datuak eskuratzeko aukerari uko egiteko eskubidea dauka (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua).

Kasu horretan, interesdunak ukatze horren arrazoiak justifikatu beharko lituzke eta dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu (2016/679 (EB) Araudia, Datuen Babeserako 21. artikulua).

Horrez gain honakoa aurkeztu beharko dute:

- Hipoteka mailegua: azken hilabeteko ordainketaren agiria eta gaur

NISAE:

- Consulta de ingresos actuales de todas las personas de la unidad convivencial. En el caso de que algún miembro de la unidad convivencial no disponga de ingresos, consulta de situación de paro y de inscripción como demandante de empleo.

- Consulta de padrón histórico de los miembros de la unidad convivencial.

- Certificados de bienes muebles e inmuebles del solicitante y unidad convivencial.

- Registro de inscripción en Etxebide.

Los datos de estar al corriente del pago de tributos y sanciones con el Ayuntamiento de Zumarraga, así como los datos de empadronamiento en el municipio, serán recabados directamente de oficio por el propio Ayuntamiento.

La persona interesada tiene derecho a oponerse al acceso, a través de la plataforma de interoperabilidad NISAE, por parte del Ayuntamiento de Zumarraga a los datos que figuren en el resto de Administraciones Públicas (artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo).

En ese caso, el interesado deberá justificar las razones de su oposición y aportar los datos o documentos correspondientes (artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos).

Además, se deberán presentar:

- Préstamo hipotecario: justificante del último pago y certificación bancaria de

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT261.7.b5eS		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatze hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-4-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

egungo egoeraren bankuko ziurtagiria (ordaintzako gelditzen den diru eta hilabete kopurua), hala badagokio.

- Laguntza eskatzen duen gastuen aurrekontuak.

Eskaera lehen aldiz egiten dutenek edo, edozein arrazoi dela medio, egoera aldaketa bat dutenek:

- Banantze-epaia eta, hala badagokio, hitzarmen arautzailea.

- Familia-unitateko kide guztien jatorrizko herrialdekoa ondasun higigarri eta higiezin ziurtagiriak edo eskatu izanaren zineko aitortpena, 2 urterako baliozkotasunarekin.

- Etxebizitza alokairuaren kontratua eta ordainketa ziurtagiria (alokairua, azpierrementamendua, ostatua...).

- Eskatzailearen izenean dauden kontu korrante guztien azken 6 hilabetetako banku mugimenduak.

5. ERABAKIA

Aurkeztutako eskabidea izapidetzea Zumarragako Udalaren Gizarte Zerbitzuetako sailari dagokio.

Kasu bakoitza bere gain hartu duen Gizarte Zerbitzuetako saileko teknikariak egingo du dagokion txostena.

Espedientea, emateko zenbatekoa kontuan harturik, Dekretu bidez ebatziko da.

Ebazpena emateko epea gehienez bi hilabetekoa izango da, eskaerak aurkeztutako hurrengo egunetik kontatzen hasita. Behin epe hori igarota,

la situación actual (cantidad y mensualidades restantes) si procede.

- Presupuestos de los gastos para los que solicita la ayuda.

Para las que solicitan por primera vez esta ayuda o las que por cualquier motivo hayan tenido un cambio en su situación:

- Sentencia de separación y/o convenio regulador en su caso.

- Certificados de bienes muebles e inmuebles de todos los miembros de la unidad familiar del país de origen o declaración jurada de haberlo solicitado con una validez de 2 años.

- Contrato de arrendamiento de vivienda y justificante de pago (alquiler, subarriendo, hospedaje...).

- Movimientos bancarios de los últimos 6 meses de todas las cuentas de las que el solicitante es titular.

5. RESOLUCIÓN

La tramitación de las solicitudes presentadas corresponderá al Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zumarraga.

La realización del informe correspondiente será a cargo del/a técnico del departamento de Servicios Sociales responsable de la intervención del caso.

La resolución del expediente se realizará mediante Decreto.

El plazo máximo para dictar resolución será de dos meses, a contar desde el día siguiente de la presentación de la solicitud, transcurrido el cual se entenderá

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen balioztasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-5-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

laguntzaren eskaera atzera bota dela ulertuko da berariazko ebazpena ematen ez bada, Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

6. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Udaleko gizarte zerbitzuek baieztatuko dituzte, dagozkien bideak erabilita, eskatzaileen egoera ekonomikoa, lanekoa edota soziala, eta baita diru laguntzei emaniko erabilera ere.

Nahitaezko balorazio profesionala behar dute, erreferentziatzeko gizarte-langileak egindako beharren hasierako balorazioan oinarrituta.

7. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Deialdi honen zenbateko osoa 20.000€-koa da eta 0213 480 231-00 01 148 diru-atalaren kontura finantzatzeko da.

Udal-laguntzak emango dira harik eta aurrekontu-kreditua agortu arte.

Hala ere, aipatu kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

2026an Udal diru laguntza modura banatuko diren izaera orokorreko gehiengo zenbatekoak, atal honetan adierazten diren gastuetarako.

desestimada la petición de ayuda si no recayera resolución expresa, a los efectos de lo establecido en el artículo 24.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

6. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Requieren de valoración profesional preceptiva basada en la valoración inicial de necesidades realizada por la persona Trabajadora Social de referencia.

Los servicios sociales municipales comprobarán, por los medios oportunos, la situación económica, laboral y/o social de las personas solicitantes y el destino de las ayudas al objeto previsto.

7. IMPORTE MÁXIMO SUBVENCIONES A CONCEDER Y CARÁCTER DE DICHA DOTACIÓN

El importe total de la presente convocatoria asciende a 20.000€, con cargo a la partida presupuestaria 0213 480 231-00 01 148.

Se concederán las ayudas municipales hasta agotar dicho crédito presupuestario.

Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución de Presupuesto Municipal.

Para el año 2026 las cuantías máximas a conceder, con carácter general, en concepto de Ayudas Económicas Municipales para cada uno de los gastos específicos que se reseñan en el presente apartado.

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatze hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-6-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

1. Ohiko bizilekuaren edo etxebizitzaren erabilera eta mantenu gastuak:

a) Alokairuaren gastuak

Kontzeptu hau dela eta hilabeteen jaso daitekeen gehieneko diru laguntza 300 € izango da, eta inola ere ezingo da gainditu ohiko bizilekuaren alokairuarengatik ordaintzen den zenbatekoaren %70a.

Kontzeptu hau dela eta diru laguntza jasotzeko aukera izateko, eskatzailearen bizikidetzaren unitatea osatzen duten edozein kideren artean eta alokatzailearen artean ezingo da egon ahaidetasun harremanik, ez odolezkorik eta ez ezkontza-ahaidetasunik, harik eta hiru gradu gainditu arte.

b) Etxebizitza bat edo ohiko bizileku bat erosteko hartutako hipoteka-kredituen interesen eta amortizazioaren gastuak:

Kontzeptu hau dela eta hilabeteen jaso daitekeen gehieneko diru laguntza 300 € izango da, eta inola ere ezingo du gainditu ohiko bizilekuaren hipoteka-maileguaren balioaren %70a.

c) Ohiko bizilekuko horniketaren mantenimendu-gastuak: edateko ura etxebizitzetara helaraztea, estolderia, erretenak eta zabor-bilketa eta zabor-kentze zerbitzua. Kontzeptu honek jabeekideen erkidegoaren kuotaren ondoriozko gastuak eta etxebizitzaren segurtasunarekin lotutakoak ere kontutan hartzen ditu.

Kontzeptu hau dela eta hilabeteen ordaindu daitekeen gehieneko kopurua 75 €-koa izango da. Kontzeptu hau %50-a gutxituko da hurrengo kontzeptuak ere onartzen direnean: Alokairuaren gastuak

1. Gastos necesarios para el disfrute y mantenimiento de la vivienda o alojamiento habitual:

a) Gastos de alquiler.

La ayuda subvencionable máxima mensual por este concepto no podrá superar los 300€, sin que pueda superar el 70% del precio del alquiler de la vivienda habitual.

Para poder optar por este concepto a la ayuda subvencionable no podrá existir relación de parentesco hasta el tercer grado por consanguinidad o afinidad entre cualquiera de las personas miembros que constituyen la unidad convivencial de la persona solicitante y la persona arrendadora o cualquiera de las personas miembros que la componen.

b) Pago y amortización de crédito hipotecario contraídos por la adquisición de una vivienda o alojamiento habitual.

La ayuda subvencionable máxima mensual por este concepto no podrá superar 300€, sin que se pueda superar el 70% precio del préstamo hipotecario de la vivienda habitual.

c) Gastos de mantenimiento para la vivienda habitual: suministro de agua potable a domicilio, alcantarillado, canalones y servicio de recogida y eliminación de basuras. Este concepto también incluye los derivados de la cuota de la comunidad de propietarios y los relacionados con la seguridad de la vivienda.

La cuantía máxima mensual por este concepto se establece en 75€. Este concepto será minorizado en un 50%, en los casos en que se aprueben los siguientes conceptos: Gastos de alquiler o

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliozuna egiaztatze hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-7-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

edo hipoteka-kredituen interesen eta amortizazioaren gastuak.

d) Elektrizitate- eta gas-hornidurak edo etxean erabiltzeko beste erregai-mota batzuek eragindako energia-gastuak.

Kontzeptu honentzat hilabeteko gehieneko zenbatekoa 40€ ordainduko dira kide bakarreko bizikidetzak unitateetan, eta 75€ bi kide edo gehiagoko bizikidetzak unitateetan.

Pertsona/familia eskatzaileek bonu soziala eskatu beharko diete ohiko etxebizitzan energia hornitzen dion konpainiari.

e) Ohiko bizilekua edo etxebizitza bizigarri bihurtzeko eta betetzeko oinarrizko ekipamendu gastuak:

Urteko gehieneko zenbatekoa 925 € izango da.

f) Bizitokiaren oinarrizko egokitzapen, konponketa edota instalazio lanetako gastuak.

Urteko gehieneko zenbatekoa 925 € izango da.

Bizitokian bizitzeko nahitaezko eta oinarrizko diren obrak bakarrik estaliko dira.

g) Familia bizi den etxebizitzaren garbiketa gastuak, etxebizitza hori osasunaren eta higienaren kalterako edo arriskurako egoeran eta osasun pertsonalari edo publikoari eragiten duen kasuetarako.

Urteko gehieneko zenbatekoa 1.000€ izango da.

alojamiento habitual en sus diferentes modalidades; o intereses de amortización de créditos de la vivienda habitual.

d) Gastos de energía debidos al suministro eléctrico, de gas u otros tipos de combustible de uso doméstico.

La cuantía máxima mensual por este concepto se establece en 40€ mensuales para UC de un solo miembro y de 75€ mensuales para UC de dos o más miembros.

Las personas/familias solicitantes deberán solicitar el bono social a la compañía que le suministre la energía en el domicilio habitual.

e) Gastos necesarios para la habitabilidad y el equipamiento básico de la vivienda o alojamiento habitual:

La cuantía máxima anual por ambos conceptos no podrá exceder de 925 €.

f) Gastos de adaptación, reparación y/o instalaciones básicas en la vivienda:

La cuantía máxima anual será de 925 €.

Solo se cubrirán aquellas reparaciones que se entiendan básicas y necesarias para el disfrute de la vivienda.

g) Gastos de limpieza del domicilio familiar en situaciones excepcionales por insalubridad, riesgo sanitario y de higiene, que afecten a la salud personal y pública.

La cuantía máxima anual será de 1.000€.

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-8-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

e), f) eta g) puntuetan adierazitako kontzeptuetako eskaerak ukatuko dira, baldin eta ikusten bada kontzeptu hori urteetan sistematikoki eskatzen dutela, bai laguntza horien bidez, bai gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez.

2. Bizikidetzaren unitatea osatzen duten gizabanako baten edo gehiagoren oinarrizko beharrak asetzeko gastuak, hala nola, elikadura, arropa, hezkuntza / formakuntza eta osasun arreta eta garraio-gastuak, bestelako sistema publikoek estali gabeak eta ondoko irizpideak kontuan harturik.

Salbuespenezko kasuetan, baldintzak ez betetzeagatik Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikoaren edozein estalduratik kanpo geratzen badira, modu puntualean eta erreferentziako gizarte-langileak baloratu ondoren, elikagai-premiak estaltzeko laguntza ekonomikoa eman ahal izango da.

Urteko gehieneko zenbatekoa 2.500€ izango da.

3. Zorren ondoriozko gastuak.

Hilabeteko gehieneko zenbatekoa 500€ izango delarik, eta beti ere urteko 6.000€ zenbatekoa gainditu gabe.

Aurkeztutako zorra kontuan harturik aztertuko da diru laguntzaren zenbatekoak konponduko lukeen ala ez gerta daitekeen bahikuntza eta, beraz, udaleko Gizarte Zerbitzuetako aurrekontu-kredituetatik diru laguntzaren aldeko ebazpena eman ala ez. Irtenbide ekonomiko hau bideragarri ez dela ikusiko balitz beste instantzia batzuei igorriko zaie kasua.

Se denegarán aquellas solicitudes de los conceptos señalados en los puntos e), f) y g) en los que se observe que de forma sistemática durante años solicitan este tipo de concepto, bien a través de estas ayudas o de las ayudas de emergencia social.

2. Gastos relativos a las necesidades primarias de una o más personas de la unidad de convivencia, tales como vestido, educación y formación, atención sanitaria y transporte no cubiertas por los diferentes sistemas públicos.

En aquellos casos excepcionales que por incumplimiento de requisitos queden fuera de toda cobertura del sistema público Vasco de Servicios Sociales, de forma puntual y previa valoración de la trabajadora social de referencia, se podrá conceder ayuda económica para la cobertura de necesidades de alimento.

La cuantía máxima anual será de 2.500€.

3. Gastos por endeudamiento previo.

Por una cuantía máxima mensual de 500€ sin que supere anualmente la cuantía de 6000€.

Se tendrá en cuenta la deuda presentada y dependiendo de la misma se considerará si la cuantía subvencionable puede o no solucionar la situación de algún posible embargo y por lo tanto si procede o no la resolución favorable de la subvención desde los créditos presupuestarios del área de los Servicios Sociales Municipales. En caso de observarse la no viabilidad de la solución económica necesaria se propondrá la derivación de la necesidad a otras instancias.

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-9-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

4. Dirulaguntzak Zumarragako kiroldegi instalazioen erabilera-tarifak ordaintzeko.

Dirulaguntza %50ekoa izango da familia tarifetan, eta %25ekoa norbanako tarifetan.

Baldintza::

- Udal kiroldegiko abonaturako pertsona edo familia izatea 2026. urtean.

- Kiroldegiko instalazioen erabilera bermatzea, gutxienez, ordaindutako denboraldiaren %20.

Betebeharrak:

- Eskaera urtean zehar edozein momentutan egin daiteke.

- Ordainketa urteko azken hiruhilabetean egingo da.

Gastu bakoitzeko gehieneko zenbateko kengarria

2026 ekitaldiari dagokionez, honakoak izango dira gastu bakoitzeko ken daitezkeen gehieneko kopuruak:

- Alokairu gastuak:
Kontzeptu hau dela eta hilabetean ken daitekeena ezin izango du gainditu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.
- Ohiko bizileku edo etxebizitza erostearen ondoriozko hipoteka-kredituaren interes eta amortizazio gastuak ordaintzeko.

4. Ayuda para el abono de tarifas para uso de instalaciones polideportivas de Zumarraga.

La cuantía a subvencionar será el 50% de la tarifa de precios que corresponda a familias y 25% de la tarifa de precios que corresponda a abonos individuales.

Requisito específico:

- Tener la condición de persona o familia abonada del polideportivo municipal durante el año 2026.

- Garantizar el uso de las instalaciones del polideportivo al menos el 20% de la proporción abonada.

Condiciones específicas:

- La solicitud podrá ser tramitada en cualquier momento del año en curso.

- El abono se hará efectivo dentro del último trimestre del año.

Cuantías máximas a deducir por cada gasto

Para el año 2026 las cuantías máximas a deducir por cada gasto serán las siguientes:

- Gastos de alquiler:
La cuantía máxima mensual a deducir por este concepto no podrá superar el 70% del precio del alquiler de la vivienda.
- Gastos derivados de intereses y de amortización de créditos hipotecarios contraídos como consecuencia de la adquisición de una vivienda o alojamiento habitual:

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-10-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

Kontzeptu hau dela eta hilabeteen ken daitekeen ezin izango du gaintitu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.

- c) Mantenu gastuak: energiaren eta uraren hornikuntza eta etxebizitzaren mantenu orokorrerako bestelako gastuak:

Kontzeptu honentzat hilabeteko gehieneko zenbatekoa 92,50 € izango da.

- d) Elbarritasun, menpekotasun, bazterketa edo babesgabetasun egoerengatik sortutako ez ohiko gastuak.

Kontzeptu hau dela eta hilabeteen ken daitekeen gehieneko kopurua 100 €-koa izango da.

- e) Prestamo pertsonalak:

Kontzeptu hau dela eta hilabeteen ken daitekeen ezin izango du gaintitu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.

- f) Salbuespen edo premiazko egoerei atxiki daitezkeen bestelako gastuak.

Kontzeptu hau dela eta hilabeteen ken daitekeen gehieneko kopurua 100 €-koa izango da.

8. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA ETA EPEAK. AURRERAKINEN AUKERA.

La cuantía máxima mensual a deducir por este concepto no podrá superar el 70% del montante de los intereses mensuales y la amortización mensual de crédito.

- c) Gastos para el mantenimiento de los suministros de la vivienda habitual:

La cuantía máxima mensual a deducir por este concepto no podrá superar los 92,50€.

- d) Gastos extraordinarios derivados por situación de discapacidad, dependencia, exclusión o desprotección social:

La cuantía máxima mensual a deducir por este concepto no podrá superar los 100 €.

- e) Préstamos personales adquiridos:

La cuantía máxima mensual a deducir por este concepto no podrá superar el 70% del montante de los intereses mensuales y la amortización mensual de crédito.

- f) Otro tipo de gastos que puedan ser considerados por situaciones de excepcionales o de emergencia.

La cuantía máxima mensual a deducir por este concepto no podrá superar los 100 €.

8. FORMA Y PLAZOS DE ABONO DE LA SUBVENCIÓN. POSIBILIDAD DE ANTICIPOS

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-11-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

Ordainketa egin aurretik diruz lagundu den kontzeptuari dagozkion faktura edo ziurtagiriak aurkeztuko dira.

Dena dela, ahal izango da egiaztatze hori egin aurretik ordainketak egitea, dirulaguntzaren helburu den ekimenak berekin ekartzakeen jarduerak burutu ahal izateko. Kasu horietan, laguntza justifikatzen ez bada, dirulaguntza itzultzeko prozesuari hasiera emango zaio.

Aurreikusitako helbururako erabiltzea bermatzeko, ezohiko kasuetan eta laguntzaren onuraduna aurrez ados izanik, laguntza zuzenean igorri ahal izango zaie beste erakunde batzuei.

9. DIRULAGUNTZAREN NORAKOA FROGATZEKO EPEAK ETA ERAK

Zumarragako Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Aldizkakoak Ez diren Udala Laguntzen onuradunen segimendua egingo dute, dagokion dokumentazioaren bidez laguntzak aurreikusitako helburuetara egokitu direla egiaztatu ahal izate aldera. Gehieneko epea 2027ko urtarrilaren 20 izango da.

Pertsona onuradunak. Baldintzak eta betebeharrak

a) Jasotako prestazioak emateko helburuan aplikatzea, eta gizarte zerbitzuen aurrean agirien bidez justifikatzea.

b) Gizarte-langileari jakinaraztea aldaketak izanez gero prestazioak eskuratu ahal izateko baldintzak betetzeari dagokionean, eta, zehatzago, ondorengoak adieraztea:

Previa presentación de las facturas o justificantes adecuados que acredite la realización o justificación del concepto subvencionado.

No obstante, podrá autorizarse la realización de pagos anticipados con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. En estos supuestos, la no justificación de la ayuda dará lugar al inicio del proceso de reintegro.

A efectos de garantizar la utilización para el fin previsto, en casos excepcionales y previa conformidad del beneficiario/a de la ayuda, ésta podrá librarse directamente a otras entidades.

9. PLAZOS Y FORMAS DE JUSTIFICACIÓN DEL DESTINO DE LA SUBVENCIÓN

El Servicio Social de Base del Ayuntamiento de Zumarraga realizará el seguimiento de los/as beneficiarios/as de las Ayudas Municipales, a efectos de comprobar mediante la documentación oportuna el que las referidas ayudas se hayan adecuado a los fines previstos. El plazo máximo de justificación será el 20 de enero de 2027.

Obligaciones y compromisos de las personas beneficiarias

a) Aplicar las prestaciones recibidas a la finalidad para la que se hubieran otorgado.

b) Comunicar a su Trabajador/a Social de referencia cualquier cambio que se produzca en su situación con relación al cumplimiento de los requisitos que pudieran dar lugar al acceso de las

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen balioetasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-12-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

- Familiaren osaeran izandako aldaketak.
 - Prestazioa kalkulatzeko oinarri izan diren diru-sarrerak edo ondareen baliabideak aldatzea.
 - Ohiko bizitokiaren inguruko aldaketak.
- c) Gizarte Zerbitzuen aurrean azaltzea eta eskatutakoan haiekin lan egitea.
- d) Emandako laguntzak justifikatzea.
- e) Oker jasotako prestazioen zenbatekoa edo okerreko zenbatekoa itzultzea, horretarako ezarritako prozesuaren arabera.

10. JAKINARAZPENA

Baiezko ebazpena, edo, horrela badagokio ezezkoa, ematen duen egunetik zenbatzen hasita hamar eguneko epearen barruan jakinaraziko dio udalak eskatzaileari.

11. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEA. ITZULKETA KASUAK ETA PROZEDURA

Onuradunak ez baditu oinarri hauetan eta ezargarri diren gainerako araudietan zehaztutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen, diru-laguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat emango zaio, eta diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli beharko ditu.

prestaciones, y, más específicamente, los siguientes:

- Cambios en la composición de la unidad de convivencia.
 - Modificación de los ingresos y/o patrimonio que hayan servido de base para el cálculo de la prestación.
 - Cambios relativos al domicilio de residencia habitual.
- c) Comparecer ante los Servicios Sociales y colaborar con los mismos cuando sean requeridas.
- d) Justificar las ayudas concedidas.
- e) Reintegrar el importe de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida, según el proceso establecido para ello.

10. NOTIFICACIÓN

La resolución de concesión o, en su caso, de denegación, que deberá ser motivada, será notificada por el Ayuntamiento a la persona solicitante en el plazo de 10 días a partir de la fecha en el que el acto haya sido dictado.

11. INCUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES. SUPUESTOS DE REINTEGRO Y PROCEDIMIENTO

El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la ayuda y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente.

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen balioztasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-13-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

—
ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

Dirua itzultzeko prozedura ofizioz hasikoda.

Prozedura hasitakoan, onuradunari jakinaraziko zaio prozedura hasi dela, zergatik hasi den, zenbatekoa itzuli behar den eta ordaintzeko epea. Interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Alegazioak jaso ondoren edo adierazitako epea alegaziorik egin gabe igaro ondoren, Udaleko organo eskudunak dagokion ebazpena emango du hilabeteko epean.

El procedimiento de reintegro se iniciará de oficio.

Iniciado el procedimiento, se notificará a la persona beneficiaria la incoación del mismo, las causas que los fundamentan, la cuantía que debe reintegrarse y el plazo para su ingreso. Las personas interesadas, podrán formular las alegaciones que estimen pertinentes.

Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo señalado sin que se hubiesen formulado, el órgano competente del Ayuntamiento dictará, en el plazo de un mes, la correspondiente resolución.

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-14-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

DIRULAGUNTZA ESKAERA ORRIA HOJA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN

Eskaeraren helburua / Objeto de la Solicitud

Deialdia edo eskatutako diru laguntza Indicar convocatoria o tipo de subvención solicitada:	PREMIAZKO EGOERETARAKO UDAL DIRULAGUNTZAK AYUDAS ECONÓMICAS MUNICIPALES PARA SITUACIONES DE NECESIDAD
Eskaera zein udal zerbitzutara zuzentzen den Área del Ayuntamiento a la que se dirige la solicitud:	GIZARTE ZERBITZUAK SERVICIOS SOCIALES
Kodea/ Código BDNS: NACE:	Helburua/ Objetivo BDNS: Eskatzailearen mota/ Tipo de solicitante:

Titularra / Titular

Izen abizenak edo entitatearen izena Nombre y apellidos o nombre de la entidad	
Helbidea Domicilio social	
Posta kodea Código postal	Herria Municipio
Telefonia Teléfono	
NAN edo identifikazio fiskaleko zenbakia DNI o número de identificación fiscal	

Ordezkarria / Representante

Ordez kariaren izen-abizenak Nombre y apellidos del representante		
NAN DNI	Helbidea Domicilio	Posta kodea Código postal
Herria Municipio	Telefonia Teléfono	Posta elektronikoa Correo electrónico

Notifikazioetarako euskarria / Soporte a efectos de notificación

Hautatu X baten bidez erantzuna nola jaso nahi duzun: Marque con una X el soporte de la notificación:	<input type="checkbox"/> Buzoi elektronikoa / Buzón electrónico <input type="checkbox"/> Paperean / En papel
Udalarekin harremana zein hizkuntzatan izan nahi duzu: bat aukeratu. Marque el idioma en el que desea relacionarse con el Ayuntamiento: elija uno	<input type="checkbox"/> Euskara <input type="checkbox"/> Castellano

Aurkeztu beharreko agiriak (Oinarri Orokorretako 6. art.) / Documentación a presentar (Art. 6 de Bases Generales)

Eskabide eredua modu egokian beteta Modelo de solicitud debidamente cumplimentado	<input type="checkbox"/>	Azken 6 hilabetetako banku mugimenduak Movimientos bancarios últimos 6 meses	<input type="checkbox"/>
Banantze-epaia eta hitzarmen arautzailea Sentencia de separación y convenio regulador	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza alokairuaren kontratua eta ordainketen ziurtagiria Contrato de arrendamiento de vivienda y justificante de pago	<input type="checkbox"/>

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-15-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

DIRULAGUNTZA ESKAERA ORRIA HOJA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN

Hipoteka mailegua: azken hilabetetako ordainketa eta gaur egungo egoeraren agiria Préstamo hipotecario: justificante de pago y situación	<input type="checkbox"/>	Jatorrizko herrialdeko ondasun higigarri eta higiezin edo eskatu izanaren zineko aitortpena Bienes muebles e inmuebles del país de origen o declaración de haberlo solicitado	<input type="checkbox"/>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------

Bankuko datuak (Bankuko datuak aldatu badira edo lehen eskaera baldin bada bakarrik bete beharrekoa) /
Datos bancarios (Únicamente rellene este apartado si sus datos bancarios han cambiado o es primera solicitud)

Banketxearen izena Entidad bancaria		Kontu zenbakia (20 digitu) Número de cuenta (20 dígitos)	
Kontuaren jabea Titular de la cuenta			
Aurkeztu beharreko dokumentazioa / Documentación a presentar Kontu korrontearen jabetza egiaztatzen duen bankuko agiria / Certificado bancario de pertenencia de c/c			<input type="checkbox"/>

Datuen egiaztapena / Verificación de datos

Zumarragako Udalak zuzenean egiaztatuko ditu sektore publikoko edozein erakundetan behar diren datuak, oinarri orokorretan eta dirulaguntzen deialdian eskatzen diren betekizunak egiaztatzeko. Interesdunak aukera honi uko egiteko eskubidea dauka arrazoiak justifikatuz eta dokumentuak aurkeztuz. Kasu hontan, bitartekotza plataformatik beste administrazioei eskatuko zaizkien zerbitzuak hurrengoak dira:

- Pertsona eta/edo entitatearen nortasun-datuak
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea
- Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea
- Egungo kontu-mailaren kontsulta
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta
- Gizarte-prestazio publikoen kontsulta
- Langabezia-datuen kontsulta eta enplegu eskatzaile bezala izen-ematearena
- Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitatearen errolda historikoaren kontsulta
- Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitatearen ondasun higiezinak
- Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitatearen ibilgailu zerrendaren kontsulta
- Etxebideko eskaeraren erregistroa eta Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen kontsulta

Udalak berak zuzenean ofizioz jasoko ditu Zumarragako Udalaren zergen eta zehapenen ordainketan egunean egoteari buruzko datuak, baita udalerrian erroldatuta egotearen datuak ere.

El Ayuntamiento de Zumarraga verificará directamente los datos necesarios en cualquier entidad del sector público, para acreditar los requisitos exigidos en las Bases Generales y Convocatoria de subvención. El interesado tiene derecho a oponerse justificando las razones y aportando estos datos. En este caso, los servicios a solicitar mediante plataformas de intermediación a otras administraciones son los siguientes:

- Datos de identidad de la persona y/o de la entidad
- Estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social
- Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias
- Nivel de cuentas actuales
- Consulta de percepción de Renta de Garantía de Ingresos
- Consulta de Prestaciones Sociales Públicas
- Consulta de situación de desempleo e inscripción como demandante de empleo de la unidad convivencial
- Consulta de padrón histórico de la unidad convivencial
- Información de bienes inmuebles de la unidad convivencial
- Consulta de listado de vehículos de la unidad convivencial
- Registro de inscripción en Etxebide y consulta de Prestaciones Económicas de Vivienda

Los datos de estar al corriente del pago de tributos y sanciones con el Ayuntamiento de Zumarraga, así como los datos de empadronamiento en el municipio, serán recabados directamente de oficio por el propio Ayuntamiento.

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen baliozuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitzez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-16-	Hoja	





ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

(GIPUZKOA)

DIRULAGUNTZA ESKAERA ORRIA HOJA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN

Bizikidetzaren unitateko datuen egiaztapena / Verificación de datos de la unidad convivencial

Izen abizenak Nombre y apellidos	NAN DNI	Sinadura Firma

- Aurka nago eta, beraz, eskatutako dokumentazioa aurkezten dut.
- No estoy de acuerdo y, en consecuencia, apporto la documentación requerida.
- [Ukatzearen arrazoiak / Motivos de la oposición](#)

Hitz ematea

Compromiso

<input checked="" type="checkbox"/> Azpian izenpetzen duenak hitz ematen du, dirulaguntza jasoz gero, Dirulaguntzen Ordenantza Erregulatuzailean eta deialdian ezarritako baldintzak beteko dituela.	<input checked="" type="checkbox"/> El abajo firmante se compromete, en el supuesto de recibir subvención, a cumplir las condiciones establecidos en la Ordenanza Reguladora de subvenciones, así como las bases de la presente convocatoria.
Lekua eta eguna Lugar y fecha	Titularren edo ordezkariaren sinadura Firma del titular o representante

Datu pertsonalen babeserako oinarritzko informazioa.

Lortutako datuak Zumarragako Udalaren ardurapeko gestio administratiboetarako bildu eta gestio horietarako erabiliko dira. Horrekin, dagokion administrazio prozedura gauzatu ahalko da, eta tarteko den pertsonak beti mantenduko du datu horiek ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta kontra egiteko eskubidea, baita datuen babeserako gainerako eskubideak ere: aurrez aurre eskatuta Herritarren Arreta Bulegoan, Euskadi plaza 1, edota elektronikoki udal webgunearen bidez. Datuen erabilera legez definitua egoteaz gain, pertsona interesatuaren baimena ere badu honako dokumentua sinatuz. Datuak Udaleko zerbitzu edo administrazio unitateari komunikatuko zaizkio, eta ezin izango dira hirugarren bati utzi, salbu eta izaera pertsonaleko datuen babesak indarrean duen araudiak aurreikusten dituen kasuetan.

Honako dokumentua sinatzean, baieztatzen da baimena ematen duzula zure datu pertsonalen erabilera horretarako.

Información básica en protección de datos de carácter personal.

Los datos recabados serán incorporados y tratados en la actividad de tratamiento propia de gestión administrativa responsabilidad del Ayuntamiento de Zumarraga, con la finalidad de tramitar el correspondiente procedimiento administrativo y ante quien las personas afectadas podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición y demás derechos en materia de protección de datos solicitándolo de modo presencial en la oficina del Servicio de Atención al Ciudadano, ubicada en la plaza Euskadi, 1 y de modo electrónico a través de la sede electrónica municipal.

El tratamiento de datos queda legitimado por obligación legal así como por el consentimiento expreso de la persona interesada mediante la firma del presente documento. Los datos se comunicarán a las Servicios/ Unidades administrativas del Ayuntamiento competentes en la materia relacionada con la comunicación realizada y no podrán ser cedidos a terceros salvo en los supuestos previstos en la normativa vigente sobre protección de datos de carácter personal.

La firma del presente documento constituye prueba de su consentimiento explícito para el tratamiento de sus datos personales.

Kodea/Código	AV26/0001	Espte./Expte	2026BGCS0001
CSV	000.0080.AAAAT261.7.b5eS		
URL	https://munigex.net/r/0/80/AAAAT2617.b5eS		
Dokumentu honen balioa egiaztatzen duen Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu. Para verificar la validez de este documento acceda a la siguiente Web o lea la imagen QR			
Orrialdea	-17-	Hoja	

